

CURRICULUMEN KANPOKO PRAKTIKEN ARAUDI ESPEZIFIKOA

(Fakultateko Ataleko Batzarrak 2022-06-13an onartua)

1. Araudi honek UPV/EHUko Medikuntza eta Erizaintza Fakultateko Donostiako Ataleko curriculumeko kanpoko praktikak (practicuma) arautzen ditu, UPV/EHUko Ikasleen Kanpoko Praktika Akademikoak Arautzeko Araudiaren babesean (2019ko abuztuaren 6ko EHAA, 147. zk.).
2. Kanpoko praktikak derrigorrezkoak dira Erizaintzako Graduak titulazioko ikasgai hauetan matrikulatutako ikasleentzat: Zaintzaren Hastapenak, Practicum I, Practicum II, Practicum III, Practicum IV eta Practicum V.
3. Ikasleek practicumeko irakasgai bakoitza egiteko beharrezkoak diren baldintza akademikoen berri izan behar dute. Baldintza horiek irakasgai horietako irakasle-gidetan jasota daude.
4. Lehen mailako ikasleek praktiken lekua hautatuko dute aurreinskripzioaren bidez, eta bigarren, hirugarren eta laugarren mailakoek automatrikularen unean. Hautaketa hori Praktika Batzordeak ezarritako irizpideei jarraituz egin behar da, eta kontuan hartuta praktikak ezin direla egin ikaslea erabiltzaile den osasun-zentroan edo lan egiten duen zentroan. Ikasleak praktikarako leku bat hautatzen badu aurrez ezarritako irizpideak bete gabe, Praktika Batzordeak beste plaza bat esleituko dio libre geratzen direnen artean. Era berean, Praktika Batzordeak ahalmena izango du plaza esleitzean egokitzapena justifikatzen duten egoera bereziak kontuan hartzeko.
5. Uniformea: arropa guztiak (barrukoa eta kanpukoa) zuria izan behar du: kanpoko bata/kasaka, botoi-kasaka, galtzak, galtzerdiak eta osasun-ingurunearekin bat datozen oinetako zuriak. Bi uniforme eduki behar dira higie-ne-baldintzak bermatzeko. Uniformeak osasun-erakundeak garbitzen badira, behar bezala etiketatuta egon behar dute, tenperatura altuetan garbitzeko. Nahitaezkoa da UPV/EHUko ikaslea dela adierazten duen identifikazio-txartela leku ikusgarrian eramatea.
6. Praktikaldiak hasiera-dateak eta amaiera-dateak mugatzen dituzte. Ezin da praktikarik egin ezarritako datetatik kanpo, baldin eta behar bezala justifikatu ondoren Praktika Batzordeak edo hark eskuordetzen duenak salbuespentzat hartzen ez badu.
7. Praktiken ordutegia: nahitaezkoa da unibertsitateak eta praktika-zentroak adostutako ordutegia betetzea. Oro har, lehenengo mailan egunean 6 ordu egingo dira (erreferentziako ordutegia: 8:00-14:00 eta 15:00-21:00) eta gainerako ikasturteetan 7,5 ordu egunean (erreferentziako ordutegia: 7:45-15:15 eta 14:45-22:15). Unitate jakin batzuetan eta laugarren mailan, praktikak gaueko txandan egiteko aukera egongo da, eta 11,5 orduko saioak izango dira (erreferentziako



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea

MEDIKUNTZA
ETA ERIZAINZAKO
FAKULTATEA
FACULTAD
DE MEDICINA
Y ENFERMERÍA

ERIZAINZAKO GRADUA
GRADO EN ENFERMERIA

ordutegia: 21:45 - 8:15). Zerbitzuen ezaugarrien arabera, ordutegiak aldatu ahal izango dira. Ikasleak ez du unitatea utzi behar asistentzia-praktiken ordutegian.

8. Praktiketako ordutegian ezin izango da eskuko telefono pertsonala erabili.
9. Ikasleek ahalik eta lasterren jakinaraziko diete bai irakasleari bai irakasle tutoreari praktikei eragiten dien edozein gorabehera. Istripua gertatuz gero, praktiketako dekanordeari eta ikastetxeko idazkaritzakoei ere jakinarazi beharko die.
10. Ikasleek ahalik eta lasterren jakinaraziko diete instruktoreari eta irakasle tutoreei ordutegiarekin lotutako edozein bertaratze-falta edo aldaketa.
11. Praktiketara ez joatea justifikatu egin beharko da eta errekuperatu. Irakasgaiaren arduradunari baimena eskatu ahal izango zaio heriotzagatik edo norberaren, ahaideen edo kidekoen gaixotasunagatik, edo behar bezala justifikatutako Erizaintzako Kongresuetara edo Jardunaldietara joateagatik. Eskaera horiek ikaslearen prestakuntza-prozesua kontuan hartuta ebatziko dira, eta gehienez ere 3 egun eman ahal izango dira ikasturte bakoitzeko lehen hiru mailetan eta laugarren mailan 2 egun gehienez practicum-ziklo bakoitzeko.
12. Ezintasun iragankorreko egoeran dauden ikasleek ezin izango dute asistentzia-praktikarik egin.
13. Ikasleak ez dira zentrora joango asistentzia-praktikak egitera, zentroan lan-grebarako deialdia egiten denean.
14. Gomendatzen da B hepatitisaren txertoa jarrita izatea; baita praktika-zentroak eskatzen ahal dituen beste txertoak ere.
15. Ikasleek practicumari buruzko eskaerak egingo dituzte, Atalak ezarritako instantzia eta prozedura erabiliz eta ezarritako aldiak errespetatuz.